2. Dada la naturaleza de los gastos financiables, y teniendo en cuenta que los mismos se declaran ante el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia a través del modelo 140, se calcularán los gastos subvencionables en base a la información sobre los mismos declarada respecto al ejercicio 2019 en el modelo 140 relativos a gastos de personal y gastos de arrendamiento, incrementados en el porcentaje del 25% establecido para los gastos indirectos y de adopción de medidas de seguridad en los locales para el desarrollo seguro de la actividad.

11. oinarria. *Aurrekontuko muga.*

Base 11. *Límite presupuestario.*

Dirulaguntza jasotzeko aurkezten diren eskaeretatik, horretarako aurrekontuan izendatutako kopuruek uzten dituzten beste eskaerak baino ez dira hautatuko.

De las solicitudes presentadas únicamente podrán ser seleccionadas tantas como permitan las disponibilidades presupuestarias consignadas al efecto.

12. oinarria. *Bateragarritasuna.*

Base 12. *Compatibilidad.*

1. Dekretu honen babesean emandako mikrokredituak bateraezinak dira Elkargik edo KOIk emandako abalarekin emandako maileguekin, mikrokreditu honek

1. Los microcréditos concedidos al amparo de este decreto son incompatibles con los préstamos avalados por Elkargi o por el ICO coincidentes en plazos con los

finantzatutako gastuekin bat datozen epeetan eta haien xedea COVID-19ak sortutako egoerari aurre egitea denean.

gastos financiados por el presente microcrédito y que tengan por objeto hacer frente a la crisis generada por el COVID-19.

2. Erakundeak, Bizkaiko Foru Aldundiak eskabidea ebatzi aurretik, abal bateraezina duen mailegu bat lortzen badu, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko dio eskabidean atzera egin duela, abala eman zaionetik 30 egun natural igaro aurretik. Eskabidearekin jarraitu nahi izanez gero, Elkargik edo KOIk bermatutako maileguari uko egiteko dokumentua aurkeztuko du, 30 egun naturaleko epean.

2. Si la entidad, antes de resolverse la solicitud por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, obtuviese un préstamo con aval incompatible, comunicará a la Diputación Foral de Bizkaia que desiste de la solicitud, antes de que transcurran 30 días naturales desde que se le haya sido concedido el aval. En caso de querer continuar con la solicitud presentará el documento de renuncia al préstamo avalado por Elkargi o por el ICO, en el plazo de 30 días naturales.

3. Erakundeak, Bizkaiko Foru Aldundiak eskabidea ebatzi ondoren, abal bateraezina duen mailegu bat lortzen badu, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraziko dio emandako mikrokreditu uko egiten diola, abala eman zaionetik 30 egun natural igaro aurretik. Eskabidearekin jarraitu nahi izanez gero, Elkargik edo KOIk bermatutako maileguari uko egiteko dokumentua aurkeztuko du, 30 egun naturaleko epean.

3. Si la entidad, una vez resuelta la solicitud por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, obtuviese un préstamo con aval incompatible, comunicará a la Diputación Foral de Bizkaia que renuncia al microcrédito concedido antes de que transcurran 30 días naturales desde que se le haya sido concedido el aval. En caso de querer continuar con la solicitud presentará el documento de renuncia al préstamo avalado por Elkargi o por el ICO, en el plazo de 30 días naturales.

4. Emandako mikromaileguari uko eginez gero, mikromailegua jada ordaindu bada, 32., 33. eta 34 oinarrietan aurreikusitakoaren arabera jardungo da.

4. En caso de renunciar al microcrédito concedido, si este ya hubiese sido abonado, se actuará de acuerdo con lo previsto en las bases 32, 33 y 34.

13. oinarria. *Publizitatea.*

Ekonomia sustatzeko foru diputatuaren foru agindu baten bidez, deialdi honi dagozkion emandako mikrokredituen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko da.

Base 13. *Publicidad*

Mediante orden foral de la diputada foral promoción económica, se ordenará la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, del extracto de los microcréditos concedidos correspondientes a la presente convocatoria.

14. oinarria. *Zabalkundea.*

Dekretu honen babespean ematen diren laguntzen pertsona edo entitate onuradunek laguntza horien publizitatea egin beharko dute, LFAren 17.3 artikuluan adierazitakoaren arabera.

Base 14. *Difusión.*

Las personas o entidades que resulten beneficiadas por ayudas concedidas al amparo de este decreto, deberán dar publicidad del apoyo recibido, de acuerdo a lo indicado en el art. 17.3 de la NFS.

15. oinarria. *Laguntzak metatzea..*

Base 15. *Acumulación de ayudas.*

Foru dekretu honetan jasotako laguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2013ko abenduaren 24ko Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 352. Zenbakikoan, eta EE Itunaren 107. eta 108. artikuluak minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Horren ondorioz, arautegi hori ez betetzeak, erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar liezaioke enpresa arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako minimis laguntza, guztira, ez da 200.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

Las ayudas contempladas en el presente decreto foral están sujetas a lo dispuesto en el Reglamento (UE) nº1407/2013 de la Comisión de 18 de diciembre de 2013 relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea DOUE 352 el 24 de diciembre de 2013) y en consecuencia el incumplimiento de esa normativa, podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para la empresa infractora. Según lo establecido por la Unión Europea, la ayuda total de MINIMIS concedida a cualquier empresa no deberá exceder de 200.000 euros en un período de tres ejercicios fiscales.

16. oinarria. *Erakunde laguntzailea.*

Ekonomia Sustatzeko Sailak, bere helburuak lortzeko, Beaz SAU sozietate publikoaren sostengua du, zeinak erakunde laguntzaile gisa hartuko baitu parte programa honetan. Hori guztia bat etorriz Bizkaiko Foru Aldundiak eta Beaz SAUk sinatutako lankidetza-hitzarmenarekin, zeinaren arabera Beaz SAUk erakunde laguntzaile gisa jardungo baitu Ekonomia Sustatzeko Sailak sustatutako zenbait dekretuekin lotuta. Delako hitzarmena 2017ko uztailaren 19an formalizatu zen.

Beaz SAUk Bizkaiko Foru Aldundiaren izenean eta haren kontura jardungo du, sail horrek ematen baititu ondorio guztietarako mikrokreditu horiek.

Base 16. *Entidad colaboradora.*

El Departamento de Promoción Económica cuenta para la consecución de sus objetivos con la asistencia de la sociedad pública Beaz, SAU, la cual intervendrá dentro del presente Programa como entidad colaboradora. Todo ello conforme al convenio de colaboración suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y Beaz SAU para que actúe como entidad colaboradora en relación con ciertos decretos promovidos por el Departamento de Promoción Económica. Dicho convenio fue formalizado el 19 de julio de 2017.

Beaz, SAU actuará en nombre y por cuenta de la Diputación Foral de Bizkaia, que es quien concede a todos los efectos estos microcréditos.

## III. TITULUA

## Emateko prozedura

17.oinarria. *Eskabideak aurkeztea.*

1. Eskabidea Internet bidez aurkeztuko da "Ekonomi eta Lurralde Garapeneko bulego birtuala" atalean (http://www.bizkaia.eus/Sustapena-BulegoBirtuala).

2. Bulego birtualera sartzeko erak:

## TÍTULO III

## Procedimiento de concesión

Base 17. *Presentación de solicitudes.*

1. La solicitud se presentará por Internet, en el apartado "oficina virtual de Promoción Económica" (http://www.bizkaia.eus/Sustapena-OficinaVirtual).

2. El acceso a la oficina virtual podrá realizarse por medio de:

a) Sinadura elektronikoa duen txartela edo ziurtagiria.

b) B@k edo B@kQ txartelak.

Bi aukeretako edozeinetan egin daitezke eskaerak, bai norberaren izenean, bai hirugarrenen izenean.

3. Eskabidearen formularioan sartu aurretik, sistemak eskatuko dizkizu Ekonomia Sustatzeko Sailaren Erakundeen eta Pertsonen Erregistroan (EPE) inskribatzeko behar diren datuak. Erregistro hori erregulatuta dago Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretuan, zeinean ezartzen eta arautzen baita Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eta Enplegua, Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Erakundeen eta Pertsona Fisikoen Erregistroa.

4. Autonomoek, ondasun-erkidegoek edo sozietate zibilek eskabide barraka aurkezteko ahal izango dute.

5. Eskabidea aurkeztean, eskatzaileak baimena ematen du informazioa lortzeko, jakiteko zein den haren zergekiko egoera:

a) Bere zerga-egoera.

b) Gizarte Segurantzarekin duen egoera.

c) Lanbiderekin edo dagokion enplegu-zerbitzu publikoarekin duen egoera.

d) 140 ereduari buruzko zerga-informazioa.

e) Elkargik eta KOIk abalatutako maileguei buruzko informazioa.

6. Eskabidearekin batera, dekretuan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da; horretarako, gorago aipatu den atari digitalean agiriak eransteko dagoen sistema erabili behar da.

7. Eskabideak jaso ondoren, oso-osorik beteta ez badaude, entitate eskatzaileari errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean (jakinarazpena egin, eta biharamunetik zenbatzen hasita) akatsa konpon dezan edo nahitaez aurkeztu beharreko dokumentuak aurkez ditzan; eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskabidean atzera egindakotzat joko dela horretarako

a) Tarjeta o certificado con firma electrónica.

b) Tarjetas B@k o B@kQ.

Cualquiera de las dos posibilidades permite realizar solicitudes tanto en representación propia como de terceros.

3. Antes de acceder al formulario de solicitud, el sistema le solicitará los datos necesarios para la inscripción en el Registro de Entidades y Personas (REPPE) del Departamento de Promoción Económica, regulado mediante el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 109/2016, de 14 de junio Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 109/2016, de 14 de junio, sobre establecimiento y regulación del registro de entidades y personas físicas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

4. Las personas autónomas, las comunidades de bienes y las sociedades civiles únicamente podrán presentar una única solicitud al presente decreto.

5. La presentación de la solicitud conllevará la autorización de la persona o entidad solicitante para permitir la obtención de manera directa de la información relativa a:

a) Su situación tributaria.

b) Su situación con la seguridad social.

c) Su situación con Lanbide o servicio público de empleo que corresponda.

d) Información fiscal relativa al modelo 140.

e) Información sobre préstamos avalados por Elkargi y por el ICO.

6. La solicitud deberá ir acompañada de la documentación que se fije en el decreto, utilizándose el sistema de anexado de documentación existente en el portal virtual anteriormente citado.

7. Recibidas las solicitudes, si éstas no vinieran debidamente cumplimentadas, se requerirá a la entidad solicitante para que, en el plazo de diez (10) días hábiles, contados a partir del día siguiente en que tenga lugar la notificación, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de la

beren-beregi emaniko ebazpen baten bidez, APAPELko 21 eta 68. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

correspondiente solicitud mediante resolución dictada al efecto, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 21 y 68 de la LPACAP.

18. oinarria. *Emateko prozedura.*

1. Norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira dekretu honetan arautako mikrokredituak.

2. Eman nahi den laguntzaren xedeak berak justifikatzen du norgehiagokarik gabeko araubidean ematea. Askotariko egoerak gerta daitezke eskatzaileen artean, eta horrek zaildu egiten du ebaluazio-irizpide objektibo eta homogeneoak finkatzea aurkezten diren eskabideen artean lehentasunak ezartzeko.

3. Dekretu honen ondorioetarako, hau jotzen da norgehiagokarik gabeko prozeduratzat: eskariak jaso ahala banatzea diru-funtsak. Hala, bada, eskabideek Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroan duten sarrera-dataren arabera ezarriko da eskarien arteko lehentasuna, eta, deialdian ezarritako betekizunak betetzen badituzte, aurrekontuko hornidurek ahalbidetzen duten bitartean emango dira laguntzak.

Base 18. *Procedimiento de concesión.*

1. Los microcréditos regulados en este decreto se concederán en régimen de libre concurrencia.

2. Se justifica la concesión en régimen de libre concurrencia por el objeto de la ayuda a otorgar. La diversidad de supuestos que se pueden dar dificulta establecer criterios de valoración objetivos y homogéneos que permitan establecer una prelación entre las solicitudes presentadas.

3. Se entiende a los efectos del presente decreto como libre concurrencia el procedimiento mediante el cual se distribuyen los fondos según se reciban las peticiones, atendiendo al orden prioritario de registro de entrada de la solicitud en el registro de la Diputación Foral de Bizkaia, siempre que reúnan todos los requisitos establecidos en la convocatoria y hasta que las dotaciones presupuestarias lo permitan.

19. oinarria. *Laguntzak emateko prozedura antolatu, bideratu eta ebatziko duten organo eskudunak.*

1. Enpresak Sustatzeko Zerbitzuak izapidetuko ditu eskabideak, eta ekonomia sustatzeko foru diputatuak ebatziko ditu, ekintzailetza eta lehiakortasuna bultzatzeko zuzendari nagusiak proposamena eginda.

2. Organo instrukziogileak egiaztatu egingo du erakunde onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen diren.

3. Emakida prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko organo eskudunak osatzerako orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkaritza ordekatuta dagoela; horrek esan nahi du bi sexuek ordezkariren bat eduki beharko dutela, 4/2005 Legearen 20. artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Base 19. *Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.*

1. Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Promoción Empresarial, y resueltas por la diputada foral de promoción económica, a propuesta del director general de emprendimiento y competitividad empresarial.

2. El órgano instructor comprobará el cumplimiento de los requisitos establecidos para adquirir la condición de entidad beneficiaria.

3. En la composición de los órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión se tendrá en cuenta la necesidad de una representación equilibrada de ambos sexos, entendiendo que ello supone que al menos ambos estén representados, tal y como está previsto en el artículo 20 de la Ley 4/2005 y el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018.

20. oinarria. *Gastuen doiketa.*

Ekonomia Sustatzeko Sailak kontsideratzen badu gastu-aurrekontua gehiegizkoa dela izaera bereko gastuen batez besteko kostuaren aldean, murriztu ahalko du diruz lagundu daitekeen oinarria, doi eta neurrizkotzat jotzen duen gastuari dagokion zenbatekoan, 5/2005 Foru Arauaren 72. artikuluan xedatutakoa eta ezarritako prozedura aplikatuz.

Base 20. *Ajuste de gastos.*

Si el Departamento de Promoción Económica considera que el presupuesto de gasto es excesivo en comparación con el coste medio de gastos de análoga naturaleza, podrá reducir la base subvencionable en la cuantía correspondiente a lo que se considera un gasto ajustado y proporcionado, aplicando lo dispuesto y el procedimiento previsto en el artículo 72 de la Norma Foral 5/20025.

21. oinarria. *Ebazpena emateko epea.*

1. Eskabidea Ekonomia Sustatzeko Saileko erregistroan sartu eta sei (6) hilabete igarota amaituko da foru dekretu honen babesean eginiko eskabidean ebazteko epea.

2. Organo eskudunak, nolanahi ere, aurkeztutako eskabide guztientzako ebazpena eman behar du nahitaez. Ebazpenerako eta jakinarazpenerako epea amaitu bada eta aipatutako organoak ebazpena eman ez badu, administrazio-isiltasunaren ondorioz eskabideari gaitz iritzi zaiola ulertuko da, horrela xedatzen APAPEL-aren 25. artikuluan.

Base 21. *Plazo de resolución.*

1. El plazo máximo para la resolución de las solicitudes formuladas al amparo del este decreto foral finalizará transcurridos seis (6) meses desde que la solicitud haya tenido entrada en el Registro del Departamento de Promoción Económica.

2. Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme a lo dispuesto en el artículo 25 de la LPACAP.

22. oinarria. *Ebazpenaren edukia eta jakinarazpena.*

1. Emate-ebazpenean, proiektuen izaera espezifikoagatik edo bestelako inguruabarrengatik komenigarritzat jotzen denean, baldintza bereziak ezarri ahalko dira. Hori arrazoitu beharko da, eta oinarrian dauden arrazoiak adierazi, kasu bakoitzari hala aplikatu eta egokitzeko foru-dekretu honetan nahiz kasuan-kasuko deialdiko araudian xedatutakoa, baldin betetzen badira laguntzen kudeaketa funtsatzen duten printzipioak eta baldin ez badira jadaneko araudiak permititzen ez dituen dispentsak edo exentzioak.

2. Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, 39/2015 Legearen 40. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa betez.

3. Hartako foru-arauaren bidez laguntza ematearekin batera, emandako mikrokreditũaren baldintzak erantsiko dira, zeinek aldeak lotetsiko baitituzte.

Base 22. *Contenido y notificación de la resolución.*

1. En la resolución de otorgamiento, podrán establecerse condiciones particulares cuando, por la naturaleza específica de los proyectos u otras circunstancias concurrentes, se estime conveniente, motivando e indicando las razones en que se basa, con el fin de aplicar y adecuar a cada caso lo dispuesto en el este decreto foral o en la normativa contemplada en la convocatoria correspondiente, siempre y cuando se cumplan los principios que informan la gestión de las ayudas y siempre que no constituyan dispensa o exención no permitida por la normativa en vigor.

2. La resolución se notificará a las entidades interesadas, de acuerdo con lo previsto en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015.

3. Junto con la concesión de la ayuda mediante la correspondiente orden foral se adjuntará las

condiciones del microcrédito otorgado que vinculará a las partes.

4. Ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, onuradun gertatu den erakundeak hamar (10) laneguneko epea du – jakinarazpena jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita – baiezkoa emateko. Epe honetan expreski onartua izan behar da mikrokredituaren ebazpena eta beronen baldintzak. Onarpen hau internet bidez aurkeztu beharko da, horretarako Ekonomia Sustatzeko Sailaren web orrian jasotako ereduaren arabera. Epe hau agortuta, berariazko onarpenik jaso gabe, onuradunak mikrokredituari uko egiten diola ulertuko da.

4. Notificada la resolución, la entidad beneficiaria dispondrá de un plazo para su aceptación, de diez (10) días hábiles contados a partir del día siguiente al que tenga lugar la notificación. En dicho plazo deberá producirse la aceptación expresa de la resolución y de las condiciones del micropréstamo. Esta aceptación deberá presentarse por internet de acuerdo con el modelo que figura en la página web del Departamento de Promoción Económica. Transcurrido el plazo sin haber recibido la aceptación expresa, se entenderá que la beneficiaria renuncia al micropréstamo.

23. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

1. Ekonomia Sustatzeko Sailak onuradunei jakinarazpenak egitean, bide elektronikoak erabili beharko ditu, 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoarekin bat.

2. Bitarteko elektronikoen bidez egiten diren jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.ebizkaia.eus) agertuz egin beharko dira, Administrazio Elektronikoari buruzko Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuaren arabera, eta herri administraziorako eta erakunde harremanetarako foru diputatuaren ekainaren 6ko 4841/2016 foru Aginduaren arabera (foru agindu hori jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa da).

Base 23. *Notificación electrónica*.

1. Las notificaciones realizadas por parte del Departamento de Promoción Económica a las entidades beneficiarias se realizarán por medios electrónicos, de acuerdo con lo previsto en el artículo 40 y siguientes de la Ley 39/2015.

2. Las notificaciones por medios electrónicos se practicarán mediante comparecencia en la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia (https://www.ebizkaia.eus), de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 62/2015, de 5 de mayo, de Administración Electrónica, así como en la Orden foral de la diputada foral de administración pública y relaciones institucionales 4841/2016, de 6 de junio, sobre la práctica de las notificaciones y comunicaciones por medio del sistema de comparecencia en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

24.oinarria. *Errekurtsoak.*

1. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, ekonomia sustatzeko foru diputatuari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, APAPELan xedatutakoaren arabera.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiaren aurrean –txandaren arabera dagokiona–, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo

Base 24. *Recursos.*

1. La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la diputada foral de promoción económica, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la correspondiente notificación, en los términos que establece la LPACAP.

2. Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao que por turno corresponda, en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente

egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, zeinak arautzen baitu Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa.

a aquél en que reciba la correspondiente notificación, en los términos contemplados por la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso administrativa.

3. Ezingo dira bi errekurtsoak aldi berean jarri, baina norbere interesak aldezteko egoki jotzen den beste edozein ekintza gauzatu ahalko da.

3. No será posible simultanear ambos recursos, sin perjuicio de cualquier optra acción que se estime oportuna en defensa de sus intereses.

25. oinarria. *Mikrokredituari uko egitea.*

Base 25. *Renuncia al microcrédito.*

1. Erakunde onuradunen batek mikrokredituari uko egiten badio, mikrokreditua hurrengo pertsona edo erakunde eskatzaileei ematea erabaki ahal izango du organo emaileak, dokumentazio osoa eta baliozkoa duen eskabidea jaso den egunaren arabera, betiere eskabideei erantzuteko kreditu nahikoa liberatu bada.

1. En caso de renuncia al microcrédito de alguna de las entidades beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión del microcrédito a las personas o entidades solicitantes siguientes según fecha de recepción de la solicitud con documentación completa y válida siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

2. Hala badagokio, mikrokreditua eman duen organoak aukera hori jakinaraziko die interesdunei, hamar (10) eguneko epe luzaezinean onar dezaten proposamena. Pertsona edo erakunde eskatzaileek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organoak mikrokreditua emateko egintza emango du eta jakinarazi egingo du.

2. En su caso, el órgano concedente comunicaría esta opción a las interesadas, a fin de que aceptasen la propuesta en el plazo improrrogable de diez (10) días. Una vez fuese aceptada la propuesta por las personas o entidades solicitantes, el órgano administrativo dictaría el acto de concesión y procedería a su notificación.

26. oinarria. *Mikrokreditua ordaintzea.*

Base 26. *Pago del microcrédito.*

1. Mikrokredituak zuzenean ordainduko dizkio erakunde onuradunari Bizkaiko Foru Aldundiak

1. Los microcréditos se abonarán directamente a la entidad beneficiaria por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

2. Kasu guztietan, erakunde onuradunei bermerik eskatu gabe egingo da ordainketa, Dirulaguntzen Erregelamentua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko 34/2010 Foru Dekretuak bere 30.3 b) artikuluan ezartzen duenaren arabera.

2. En todos los casos se procederá al abono sin exigir garantías a las entidades beneficiarias, de acuerdo con lo establecido en el artículo 30.3 b) del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

3. Betebeharra aitortu eta mikrokreditua ordaindu aurretik, egiaztatuko da erakunde onuradunek egunean dituztela zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak. Egindako egiaztapenak erakusten baldin badu erakunde onuradunak ez dituela egunean betebehar horiek, ezetsi egingo da eskaera.

3. Previo al reconocimiento de la obligación y al pago del microcrédito, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de dichas obligaciones se procederá a la desestimación de la solicitud.

4. Azken justifikazioan, mikrokreditua benetan gertatutako finantza daitezkeen gastuetara egokituko da, eta hasieran emandakoa baino txikiagoa izan daiteke. Kasu horretan, mikrokredituaren zenbatekoaren amaiera doitu egingo da, egindako gastuaren proportzioan.

4. En el momento de la justificación final el microcrédito se ajustará a los gastos financiables efectivamente producidos, pudiendo ser menor de lo otorgado inicialmente. En ese caso, se procederá a ajustar el importe del microcredito de forma proporcional al gasto realizado.

27. oinarria. *Mikrokreditua itzultzea.*

Mikrokreditua 6. oinarrian ezarritakoaren arabera itzuliko da.

Erakundeak erabaki ahal izango du aldez aurretik itzultzea mikrokredituaren kuota guztiak, 6. oinarrian ezarritakoaren araberako ordainketa bakar batean, hala iritziz gero.

Base 27. *Devolución del microcrédito*

La devolución del microcrédito se realizará de acuerdo con lo establecido en la base 6.

La entidad podrá optar por devolver anticipadamente todas las cuotas pendientes del microcrédito en un único pago de acuerdo con lo establecido en la base 6, si así lo considera.

## IV. TITULUA

## Mikrokreditua kudeatu eta justifikatzea

## TÍTULO IV

## Gestión y justificación del microcrédito

28. oinarria. *Entitate onuradunen beste betekizun batzuk.*

1. Entitate onuradunek Ekonomia Sustatzeko Saileko Enpresak Sustatzeko Zerbitzuari jakinarazi behar dizkiote entitate onuradunean alderdi hauek direla-eta gertatzen diren aldaketa guztiak.

2. Eskabidea aurkeztu ondoren Elkargik edo KOIk emandako abala duen mailegu bat lortzen bada, mikrokreditu honek finantzatutako eta COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko xedea duten gastuekin bat datozen epeetan, erakunde onuradunak berehala, eta nolanahi ere, Elkargik edo ICOk abala eman eta egutegiko 30 egun igaro baino lehen, jakinarazi beharko dio egoera hori Bizkaiko Foru Aldundiari, 12. oinarrian adierazitakoarekin bat etorriz.

3. Entitate onuradunek jasotako funtsen erabilerari buruzko frogagiriak gorde behar dituzte, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontroleko jardueren xede izan daitezke-eta.

Base 28. *Otras obligaciones de las entidades beneficiarias.*

1. Las entidades beneficiarias deberán comunicar al Servicio de Promoción Empresarial del Departamento de Promoción Económica, todos los cambios que se produzcan en relación con la entidad beneficiaria.

2. En caso de que con posterioridad a la presentación de la solicitud se obtuviese un préstamo con aval otorgado por Elkargi o por el ICO coincidentes en plazos con los gastos financiados por el presente microcrédito y que tengan por objeto hacer frente a la crisis generada por el COVID-19, la entidad beneficiaría deberá comunicar inmediatamente esa situación y, en todo caso, antes de que transcurran 30 días naturales desde que se le haya sido concedido el aval por Elkargi o por el ICO, a la Diputación Foral de Bizkaia, de acuerdo con lo indicado en la base 12.

3. Las entidades beneficiarias deberán conservar los documentos justificativos de la aplicación de fondos recibidos, incluídos los documentos electrónicos, en

tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

4. Erakunde onuradunek bete behar dituzte berek eta laguntzaren xedearekin lotutako hirugarrenek kontrol finantzarioko eginkizunak esleituta dauzkaten organoen aldera dituzten betebeharrak.

4. Las entidades beneficiarias deberán cumplir las obligaciones de colaboración que les correspondan y a las terceras personas relacionadas con el objeto de la ayuda, con respecto a los órganos que tengan atribuidas funciones de control financiero.

29.oinarria. *Informazio osagarria eskatzea.*

Dena dela, Ekonomia Sustatzeko Sailak eta Beaz, SAU erakunde laguntzaileak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta beraren jarraipena egin ahal izateko; agiriak eskatzen diren unean zehaztutako epean eman beharko dira. Era berean, erakunde eskatzaileari bisitak eskatu ahal izango dizkio proiektua egin bitartean eta amaitu ondoren, jarraipen egokia egiteko.

Base 29. *Requerimiento de información complementaria.*

En todo caso, el Departamento de Promoción Económica y la entidad colaboradora Beaz, SAU podrán requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y seguimiento de la solicitud presentada, documentación que deberá aportar en el plazo que se le especifique en el momento en el que le sea requerida. De igual modo, podrán requerir a la entidad solicitante visitas en el transcurso y a la finalización del proyecto, para su adecuado seguimiento.

30.oinarria. *Ebazpena aldatzea.*

1. Erakunde onuradunak Enpresak Sustatzeko Zerbitzuari jakinarazi beharko dizkio mikrokreditua emateko kontuan hartutako edozein inguruabar objektiboren edo subjektiboren inguruan gerta daitezkeen aldaketak.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak dirulaguntza emateari buruzko ebazpena alda dezake, bere kabuz, interesdunari entzun eta gero eta funtsak erabili aurretik, mikrokreditua emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz lortu nahi zen interes publikoa lortzea oztopatu edo eragozten denean eta erakunde onuradunari kalte ekonomikorik ekartzen ez dionean.

3. Eraakunde onuradunek, mikrokreditua itzultzeko epea amaitu baino lehen, eskatu ahal izango dute ezarritako epeak luzatzea ekar dezaketen emakidaren ebazpena aldatzeko. Aldaketa hori organo eskudunak baimenduko du aldaketa ustekabeko arrazoietan edo jarduketaren xedearen onerako beharrezko arrazoietan oinarrituta dagoenean, eta betiere xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste inoren eskubideen kalterako

Base 30. *Modificación de la resolución.*

1. La entidad beneficiaria tendrá la obligación de comunicar al Servicio de Promoción Empresarial las modificaciones que, en su caso, pudieran producirse en relación con cualquier circunstancia, tanto objetiva como subjetiva, que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión del microcrédito.

2. El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando, habiéndose advertido una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión del microcrédito, éstas impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se causen perjuicios económicos a la entidad beneficiaria.

3. Las entidades beneficiarias podrán solicitar al órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la devolución del microcrédito, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados. Dicha modificación será autorizada por el órgano concedente cuando se deba a circunstancias imprevistas, o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad

ez bada. Nolanahi ere, beren beregiko ebazpenaren bidez egin beharko da.

y no se perjudiquen derechos de terceras personas. En todo caso, deberá realizarse por resolución expresa.

4. Dirulaguntzaren erakunde onuradunak aurkeztutako justifikazioan adierazten badu ebazpena aldatzea eragin zezaketen aldaketak egon direla dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzetan (eta ez bada egin aldaketak onartzeko aurretiazko administrazio-baimenaren izapidea), dirulaguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahalko du; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona edo erakunde onuraduna izan ditzakeen zehapenetatik.

4. Cuando la entidad beneficiaria ponga de manifiesto, con ocasión de la justificación, que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente podrá aceptar la justificación presentada, sin que ello exima a la persona o entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder.

31. oinarria. *Justifikatzeko epea eta era.*

1. Mikrokredituaren zenbatekoaren justifikazioa 140 ereduan, 2021eko ekitaldiko lehen seihilekoan zehar, eskuragarri dagoen 2020ko zerga-informazioan oinarrituta egingo da.

2. Zeharkako gastuak, haien balioa zehazteko, %25 aplikatuko zaio negozio-lokalaren pertsonal eta alokairuko gastuen baturari (gastuok lehen aipatutako ereduan daude jasota).

3. Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzen badu, erakunde onuradunak mikrokredituak finantzatutako gastuekin bat datozen epean eta xedean Elkargik edo KOIk emandako abaldun mailegu bat lortu duela edo ez duela lortu adierazten duen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko du. Elkargik edo KOIk emandako abaldun mailegu bat, baterazina dena, lortu badu, 32, 33 eta 34. oinarrietan xedatutakoaren arabera jardungo da.

4. Nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiak mikrokreditua benetan justifikatu dela egiaztatzeko behar adina agiri eskatu ahal izango ditu.

Base 31. *Plazo y forma de justificación*.

1. La justificación del importe del microcrédito se realizará en base a la información fiscal del año 2020 disponible en modelo 140, durante el primer semestre del ejercicio 2021.

2. Así, los gastos indirectos se calcularán directamente determinándose su valor en un 25% de la suma de los gastos del personal y del arrendamiento del local de negocio que figuran en el modelo antes mencionado.

3. En caso de que la Diputación Foral de Bizkaia lo requiera, la entidad beneficiaria deberá aportar una declaración jurada de haber obtenido, o no, un préstamo con aval otorgado por Elkargi o por el ICO coincidente en plazo y objeto con los gastos financiados por el microcrédito. En caso de hacer obtenido un préstamo con aval de Elkargi o el ICO incompatible, se actuará de acuerdo con lo establecido en las bases 32, 33 y 34.

4. En todo caso la Diputación Foral de Bizkaia podrá requerir cuanta documentación considere necesaria para verificar la efectiva justificación del microcrédito.

## V. TITULUA

## Itzulketak eta arau-hauste administratiboak

## TÍTULO V

## Reintegros e infracciones administrativas

### I. KAPITULUA

### CAPÍTULO I

Itzultzea

32. oinarria. *Ez-betetzeak.*

1. Ez-betetze bat egon dela ulertuko da:

a) Laguntzen erakunde onuradunek ez badituzte betetzen dekretuan, emate-ebazpenean edo ezarri beharreko gainerako araudietan ezarritako baldintzak, ezta analogiaz ezarritakoak ere, LFAren 33. artikuluan zehaztutako kasuetan.

b) Azken justifikazioaren zenbatekoa emandako mikrokredituaren zenbatekoa baino txikiagoa denean.

c) Mikrokredituaren amortizazioan bi hiruhileko kuota osoak ordaintzen ez direnean

d) Erakunde onuradunak abalatutako mailegu bat izatea, dekretu honetan oinarrituta emandako mikrokredituekin bateraezina.

33. oinarria. *Borondatezko itzulketa, ez-betetzeren bat gertatuz gero.*

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak berak, Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe, egiten duena.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu, eta erakunde onuradunak behin betiko itzulketa egin duen unera arte, 34. oinarrian ezarritako oharrekin bat etorrita.

3. Betebeharrak ez betetzeagatik mikrokreditua itzultzeko, erakunde onuradunak berak eskatuta, ordainketa-gutun bat erabili beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren araberakoa, zeina Ekonomia Sustatzeko Sailak emango baitu. Zenbateko hori ordaindu ondoren, amortizatutzat joko da mikrokreditua.

Reintegro

Base 32. *Incumplimientos.*

1. Se considerará que existe incumplimiento cuando:

a) Las entidades beneficiarias de las ayudas no cumplan las condiciones establecidas en el decreto, en la resolución de otorgamiento, o las establecidas en las demás normativas de aplicación, así como, por analogia, en los supuestos determinados en el artículo 33 de la NFS.

b) El importe de la justificación final sea inferior al importe del microcrédito concedido.

c) Se produzca la falta de pago íntegro de dos cuotas trimestrales de amortización.

d) La entidad beneficiaria cuente con un préstamo avalado incompatible con los microcréditos concedidos en base a este decreto.

Base 33. *Devolución voluntaria en caso de incumplimiento.*

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración ante la existencia de un incumplimiento.

2. Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la entidad beneficiaria, de acuerdo con las consideraciones establecidas en la base 34.

3. La devolución del microcrédito por causa de incumplimiento a instancia de la propia entidad beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago, según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia, que se expedirá en el Departamento de Promoción Económica. Una vez realizado el abono de dicha cantidad se entenderá amortizado el microcrédito.

34. oinarria. *Ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak.*

1. Azken justifikazioaren zenbatekoa emandako mikrokredituaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, justifikatutako eta emandako zenbatekoen arteko aldea dela-eta sortutako soberakina itzuli beharko da.

2. Baldintzak partzialki betetzen badira edo finantza daitekeen gastua egiten bada epearen barruan, eta onuradunak konpromisoak betetzeko inolako zalantzarik gabe jardun duela egiaztatzen bada, mikrokredituaren zati bat itzuli beharko da, justifikatuta dagoen proportzioa aplikatuta.

3. 32. oinarria delako kasuetan, erakunde onuradunak, hala badagokio, jaso dituen baina justifikatu ez dituen kopuruak eta haiei dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko ditu.

4. 3. puntuan adierazitakoa gorabehera, 12.oinarrian aurreikusitako bateraezintasun-kasuan, erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazten badio Elkargik edo KOIk abalatutako mailegua, mikrokredituak finantzatutako gastuekin bat datorrena, epeari ea xedeari dagokienez, eman zaiola jakiten duenetik egutegiko 30 egun igaro baino lehen, eta dekretu honbidez emandako mikrokreditua itzultzeko eskatzen badu, ez zaio berandutza-interesik ezarriko.

5. 32 c) oinarrian ezartzen denaren arabera, ez-betetze prozedura jarriko da martxan ordaintzen ez den hiruhileko kuota bakoitzeko eta kuota horren zenbatekoarekiko berandutze-interesekin batera. Prozedura abiarazita, onuradunak ordaindu ezkero, kuota ordaindutzat emango da. Hiruhileko kuota ez ordaintzeagatik bigarren ez-betetze prozedura bat abiarazi beharko balitz, aurreko beste kuota bat ordaindu gabe dagoelarik, bigarren prozedura honek mikrokredituaren erresoluzioa ekarriko luke eta beraz onuradunak amortizatzeke legokeen mikrokreditua ordaindu beharko luke, artikulu honetan finkaturiko baldintzen arabera.

Base 34. *Criterios de graduación de incumplimientos.*

1. Cuando el importe de la justificación final sea inferior al importe del microcrédito concedido, será objeto de reintegro el exceso que se produzca por diferencia entre los importes justificado y otorgado.

2. El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo del gasto financiable, siempre que se acredite una actuación de la persona beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al reintegro parcial del microcrédito aplicando la proporción en que se encuentre justificado.

3. En los supuestos de la base 32 la entidad beneficiaria deberá reintegrar, en su caso, las cantidades recibidas y no justificadas, junto con el interés de demora.

4. No obstante lo indicado en el punto 3, en el supuesto de incompatibilidad prevista en la base 12, en el caso de que la entidad comunique a la Diputación Foral de Bizkaia, antes de trascurridos 30 días naturales desde que conozca que se le ha concedido el préstamo avalado por Elkargi o por el ICO coincidente en plazo y objeto con los gastos financiados por el microcrédito, y solicite la devolución del microcrédito concedido por este decreto, no se le aplicarán intereses de demora.

5. En lo que se refiere a lo establecido en la base 32 c), se procederá a iniciar el procedimiento de incumplimiento por cada cuota trimestral no abonada integramente y por el importe de dicha cuota junto con el interés de demora correspondiente. Si, iniciado el procedimiento, se abonase por la entidad beneficiaria, la cuota se tendría por abonada. Si se tuviese que iniciar un segundo procedimiento de incumplimiento por no abono de la cuota trimestral, sin haberse abonado otra cuota anterior, este segundo incumplimiento de no abono de cuota conllevaría la resolución del micropréstamo y la obligación por parte de la entidad beneficiaria de devolución del micropréstamo pendiente de amortizar, de acuerdo con las condiciones establecidas en este artículo.

## II. KAPITULUA

## Arau-hauste administratiboak

## CAPÍTULO II

## Infracciones administrativas

35. oinarria. *Zehapen-prozedura.*

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak xedatutako zehapen-prozedura aplikatuko da. Halaber, APAPELan eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa ere ezarri beharko da.

Bilbon emana, 2020ko ekainaren 9an.

Base 35. *Procedimiento sancionador.*

Será de aplicación el procedimiento sancionador previsto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Asimismo será de aplicación lo establecido en la LPACAP y en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Dado en Bilbao, a 9 de junio de 2020.